

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2026ko martxoaren 10eko erabaki baten laburpena, zeinaren bidez deia egiten baita 2025/2026 ikasturte akademikoan musika ikasketak egiteko laguntzetarako

BDNS (Identif.): 900958.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/900958>.

Xedea

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzek xede dute finantzatzen laguntzea Donemiliagako udalerrian errolaturiko pertsonak udalak berak eta musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek 2025/2026 ikasturtean antolaturiko musika ikasketetan izena emateak eragindako gastuak, salbu eta udalak hitzartutako musika eskoletako izen emateen gastuak.

Onuradunak

Onuradun izango dira diruz lagunduko den jardueran izena emateko epea hasi aurretik gutxienez sei hilabetez segidan Donemiliagako udalerrian errolatuta egon diren pertsonak, 2025/2026 ikasturtean Donemiliagako Udalak edo musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek egindako musika jardueretara joaten badira, salbu eta zentro hitzartuek egiten dituztenetara.

Diruz lagundu beharreko jarduera adingabe batek egiten badu, haren aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu behar du laguntza.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2026ko martxoaren 10ean egindako bilkuran onetsiak.

Zenbatekoa

Onuradun bakoitzak gehienez ere dirulaguntza hau jaso ahal izango du:

- 180,00 euro, baldin eta onuradunak izena eman badu Donemiliagako Udalak antolaturiko musika ikasketetan.
- 250,00 euro, baldin eta onuraduna musika ikasketetako bi maila edo gehiago egiten ari bada musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuetan.
- 200,00 euro, baldin eta onuraduna musika ikasketen maila bat egiten ari bada musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuetan.

Oinarrietan jasoriko dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango musika ikasketen kostu osoaren ehuneko 50 baino gehiago, eta era berean, ezingo da gainditu udal aurrekontuaren gehienezko muga.

Onetsitako aurrekontuko aplikazioa nahikoa ez bada eskaera guztiei aurre egiteko, gehieneko dirulaguntza proportzioan murriztuko da.

Aurrekontu zuzkidura

Dirulaguntzen zenbatekoa, 3.054,00 euro, partida honen kontura ordainduko da: 326 482001 (Hezkuntza zerbitzu osagarriak).

Eskaerak aurkezteko epea

Deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu ondoko egunetik 2026ko irailaren 18ra arte.

Erdoñana, 2026ko apirilaren 22a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO